

Horrela ospatu genuen 100. alea...

100 ale bete zituen pasa den hilean Drogeteniturri aldizkariak eta ez edononola. Hainbat ekitaldi antolatu ziren apirilaren lehenengo hamabostaldirako zenbaki berezia ospatzeko.

Hilaren 1etik 15era, aldizkariaren prozesua, izena ematen dion pertsonaiaren nondik norakoak, 100 aleak, argazkiak, eskerrak eta 1983tik gaur egun arteko bilakaera biltzen zuen erakusketa izan zen Udal liburutegiko erakustokian. 200 lagun baino gehigo hurbildu ziren bertara zabalik egon zen 12 egunetan.

Apirilaren 5ean izan zen egun garrantzitsua. Goizeko 11.00etan, 40 lagun inguru, trikitrilariekin kalejiran, Errekalderra joan ginen aldizkariari izena ematen dion iturriari omenaldia egitera. Hemendik aurrera bertara hurbiltzen den orok, jakingo du zein den Drogeten iturria. Bertan dantzariak ikusteko eta bertsolariak entzuteko aukera izan genuen eta sagardo eta txakoliarekin bukatu zen omenaldia.


Handik bueltan, plazan bildu eta argazki familiarra egin zen 70 lagunekin. Bukatzeko bazkari herrikoiaz eta erromeriaz gozatzeko aukera izan genuen Batzokian.

Liburu eta disko azoka

Maiatzaren 17an Euskal Liburu eta Disko azoka izango da Ermuan Euskal Birusak antolatuta. Goizeko 11.00etan hasi eta arratsaldeko 20:00ak bitartean Orbe Kardinalaren plazan prest egongo dira bai liburu eta KDak. Jakina denez, Euskal Biruseko bazkide guztiek %10eko beherapena izango dute liburu eta disko guztien erosketan. Eguraldiak lagunduko ez balu, azkenenengo bi urteetan egin den bezala, Zubiaurreko arkupeetan jarriko litzatake azoka.

Urtero bezala, Euskal Birusak hainbat ekitaldi antolatu ditu Azokaren inguruan. Maiatzaren 15ean, 19.30ean Kike Amonarriz eta Asisko Urmenetak

"Euskaraz dibertitzeko manierak" ikuskizuna eskainiko dute. Maiatzaren 16an, 22.30ean, Infreñu Tabernan Txuma Murugarrenen kantaldia izango da. Helduentzako eta ikastetxeetako haurrentzako ipuin kontalariak izango dira aurten ere.



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 71

943172665 ERMUA
BAGROS Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

Produktu artesanalak egitea...
...gure espezialitatea

Etxera eramaten dugu DOAN

ARTISAU HARAGINTZA EL NAVARRO

Probaleku kalea 943 17 04 36 Ermua